

# EUSKADI 2020 ZTBP

## Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Ekonomiko eta Jasangarria sustatzeko espezializazio adimentsuko estrategia

4. JARRAIPEN TXOSTENA  
2019ko abendua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA







ZTBP idazkaritza teknikoa:

**innobasque**







Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

“Euskadi 2020 ZTBPan ezarritako helburuen **aurrerapenaren jarraipena** egitera zuzendua, bere helburuei dagokienez, modu kuantitatiboan eta kualitatiboan eginda. Horretarako, helburu bakoitzaren bilakaera eta ZTBESko tresnen eta eragileen inplementazio-mailari buruzko informazioa jasoko duten **txostenak garatuko dira urtero.**”

Orrialdea	
<b>4</b>	<b>Helburu operatiboen betetzea</b>
	<b>Tresnen ezarpena</b>
<b>6</b>	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea
<b>7</b>	Finantzaketa programak
<b>8</b>	<i>Policy mix</i> -aren bilakaera
	<b>Gobernantza ereduaren ezarpena</b>
<b>9</b>	Gobernantza organoak
<b>12</b>	RIS3 prozesu bizia
<b>13</b>	<b>Monitorizazioa eta ebaluazioa</b>
	<b>Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa</b>
<b>14</b>	Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen bilakaera
<b>15</b>	Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu aurreikuspenak
<b>16</b>	Helburuen betetze maila
<b>17</b>	Aurreikuspena eta beharrezko ahaleginak
<b>18</b>	<b>Ondorioen laburpena</b>
	<b>Eranskinak</b>
<b>20</b>	Laguntza tresnak

Helburu operatiboak	Adierazlea	Iturria	Hasierako egoera	2016 txostena	2017 txostena	2018 txostena	2019 txostena	2020 xedea	Aurrerapen maila	Iruzkinak	
1. I+G+b baliabide eta inbertsioak espezializazio arloetan kontzentratzea	1.1.A	RIS3 lehentasun estrategikoekin lerrokatutako ardatz anitzeko TZ eta IKZ zentroyen ikerketaren %	ZTBES	%94,52 2014	94,52% 2014	%93,87 2015	%94,84 2016	%95,62 2017	%90		Xedea bete da
2. Oinarrizko ikerketa eta garapen esperimentalaren sustatzea	2.1	I+G+b jardura mix-a (oinarrizko iker. %/ iker. industrial %/ garapen esperimental %)	Eustat	14/47/39 2012	15/44/41 2014	17/44/39 2015	16/44/39 2016	15/42/43 2017	15/30/55		Aurrerapena ez da nahikoa garapen esperimentalean
3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistema emaitzetarantz orientatzea	3.1	Argitalpen zientifiko indexatuak	Ikerbasque	4.985 2013	5.618 2015	5.909 2016	6.020 2017	6.241 2018	7.500		Bilakaera eskasa, baina nazioarteko batezbestekoaren gaineratik
	3.2	Lehen kuartilean indexatutako argitalpen zientifikoaren %	Ikerbasque	%54,10 2013	%56,60 2015	%57,50 2016	%57,10 2017	%58,24 2018	%55		Xedea bete da
	3.3.A	Patenteen eskaerak	EPO (Europako Patente Bulegoa)	195 2014	192 2015	209 2016	212 2017	222 2018	270		Goranzko joera, baina ez nahikoa xedea betetzeko
	3.4	Produktu berrien salmenten % fakturazioan	Eustat	%12,73 2010	%14,87 2014	%18,96 2015	%18,50 2016	%19,06 2017	%15		Xedea bete da

1. OHARRA: 1.1 (RIS3 lehentasun estrategikoekin lerrokatutako ikerketaren ehunekoa) eta 3.3 (PCT/EPO patenteen eskaerak) adierazleak 1.1.A eta 3.3.A adierazleekin ordezkatu dira, hurrenez hurren, ez baitzegoen daturik eskuragarri.

Helburu operatiboak	Adierazlea	Iturria	Hasierako egoera	2016 txostena	2017 txostena	2018 txostena	2019 txostena	2020 xedea	Aurrerapen maila	Iruzkinak	
4. I+G+b nazioarteko funtsen atzipena indartzea	4.1	I+G+b-aren atzerriko finantzaketaren %	Eustat	%5,2 2012	%7,7 2014	%7,8 2015	%7,4 2016	%8,4 2017	%8		Xedea bete da
H2020n euskal parte-hartzea sustatzea	4.2	Euskal finantzaketaren % esparru programaren guztizko funtsekin alderatuta	Innobasque	%0,89 2013	%1,67 2014	%1,28 2015	%1,14 2016	%1,30 2017	%1,00		Xedea bete da
I+G+b arloan nazioarteko inbertsio pribatuak erakartzea	4.3	Urteko nazioarteko finantzaketa pribatua	Eustat	6 M€ 2012	20M€ 2014	15 M€ 2015	12 M€ 2016	14 M€ 2017	18 M€		Bilakaera irregularra
5. Enpresa berritzaileen kopurua areagotzea	5.1	10 langiletik gorako enpresa berritzaileak enpresa guztien kopuruarekiko	Eustat	%46,1 2012	%45,0 2014	%45,6 2015	%44,1 2016	%44,2 2017	%50		Geldialdia
6. Ikertzaileen kualifikazioa hobetzea	6.1	Doktoregoa duten ikertzaileen % ikertzaile guztien kopuruarekiko	Eustat	%29,0 2012	%29,4 2014	%30,4 2015	3%1,0 2016	%32,4 2017	%35		Joera positiboa azkartu egin da
	6.2	Doktoreen % enpresetako ikertzaile guztien kopuruarekiko	Eustat	%8,6 2013	%7,4 2014	%8,7 2015	%8,1 2016	%10,4 2017	%10		Xedea bete da

Funts publikoen pisua geroz eta txikiagoa da, baina finantzaketa pribatua eta nazioarteko finantzaketa indartu behar dira zenbait agenteren kasuan.

Agente kategorია*	Azpikategoria	Finantzaketa hasierako egoera (2014ko datuak)			Finantzaketa 2019ko txostena (2017ko datuak)			2020 finantzaketa eredua			Aurrerapen maila	Iruzkinak
		Publikoa (EAO, EJ, etab.)	Nazioart. publikoa	Pribatua	Publikoa (EAO, EJ, etab.)	Nazioart. publikoa	Pribatua	Publikoa (EAO, EJ, etab.)	Nazioart. publikoa	Pribatua		
Unibertsitateen ikerketa egiturak	Unibertsitate publikoa	%84	%4	%12	%81	%5	%14	%84	%8	%8		Nazioarteko finantzaketa publikoaren geldialdia
	Unibertsitate pribatua	%33	%4	%63	%30	%9	%61	%40	%10	%50		Finantzaketa publikoaren murrizketa
Oinarrizko ikerketarako bikaintasun zentroak (BERC)		%82	%13	%5	%74	%12	%14	%73	%15	%12		Nazioarteko finantzaketa publikoaren geldialdia
Teknologia Zentroak (TZ)		%40	%22	%39	%34	%23	%43	%35	%15	%50		Finantzaketa pribatuak ez du behar bezainbeste aurrera egin
Ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ)		%79	%15	%6	%76	%15	%9	%55	%15	%30		Finantzaketa pribatuaren hazkunde arina, baina helburutik urrun
Enpresetako I+G unitateak		%9	%3	%89	%12	%3	%86	%15	%5	%80		Finantzaketa publikoaren hobekuntza nabarmena
Osasun ikerketa institutuak		%91	%2	%7	%92	%1	%7	%86	%7	%7		Nazioarteko finantzaketa publikoaren geldialdia

- OHARRA: kanpo utzi dira eskaintza-eskaria bitartekotza agenteak, bai eta osasun arloko I+G Erakundeak ere, ez baitute finantzaketa eskemarako helbururik.
- OHARRA: IKZen finantzaketa pribatua 2016an %8,6koa izan zen, kapital inbertsioak kanpo utzita.

Oro har, tresnen ezarpena Planean aurreikusitakoaren arabera aurrera doa eta, 2018. urtean, 62 programek izan zuten deialdia, hau da, Planaren %90eko betetze mailara iritsi zen

	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua	2018an deialdidun lag. prog. %	
1. GAIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESAKO I+G-AREN BULTZADA	4	84M€	%100	+
2. ENPRESA BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMARI LAGUNTZA	23	38M€	%88	+
3. GAITASUNEN KONBERGENTZIA ETA LANKIDETZAKO I+G-AREN SUSTAPENA	5	36M€	%100	+
4. GAITASUN ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOEN SORRERA	17	127M€	%85	+
5. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA ENPRESA TALENTUAREN KUDEAKETA ETA SUSTAPENA	8	24M€	%89	+
6. I+G+b SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA	5	EZ APLIKAGARRIA	%100	+
<b>GUZTIRA</b>	<b>62</b>	<b>EZ APLIKAGARRIA</b>	<b>%90</b>	

Euskadi 2020 ZTBParent laguntza programen 2018ko deialdiek 309M€-ko aurrekontua jaso zuten administrazio eskudunengandik

**2018an, *policy mix*-ak esleituta duen aurrekontua %6 areagotu da aurreko urtearekin alderatuta, baina murriztu egin da “gaikuntza teknologikoa eta enpresako I+G-aren bultzada” ildoari dagokionez (-%6)**

**Programen guztizko kopurua gutxi gorabehera egonkor mantendu da eta, gainera, geroz eta programa gehiagok baterako deialdiak atera dituzte**

Euskadi 2020 ZTBParen ildoak	Aurrekontua (M€)			Laguntza programak (kop.)		
	2017	2018	Δ 17-18	2017	2018	Δ 17-18
1. Gaikuntza teknologikoa eta enpresako I+G-aren bultzada	89	84	<b>-%6</b>	4	4	0
2. Enpresa berrikuntzako ekosistemari laguntza	32	38	<b>+%15</b>	24	23	<b>-1</b>
3. Gaitasunen konbergentzia eta lankidetzako I+G-aren sustapena	31	36	<b>+%14</b>	5	5	0
4. Gaitasun zientifiko-teknologikoen sorrera	120	126	<b>+%6</b>	16	17	<b>+1</b>
5. Zientzia-, teknologia- eta enpresa-talentuaren kudeaketa eta sustapena	19	24	<b>+%22</b>	8	8	0
6. I+G+b sistema irekitzea eta nazioartekotzea	EZ APLIKAG.	EZ APLIKAG.	EZ APLIKAG.	5	5	0
<b>TOTAL</b>	<b>291</b>	<b>309</b>	<b>+%6</b>	<b>62</b>	<b>62</b>	<b>0</b>



Gobernantza organoek ohiko jarduerarekin jarraitu dute urtean zehar, baina bereziki nabarmentzekoak dira:

- Maila anitzeko gobernantza eredu baten ezarpen geroz eta zabalduagoa Euskadi RIS3 estrategian, **lurraldeko ezarpenari** eta **ETEen parte-hartzeari** lehentasuna emanda.

Garatutako hainbat ekintza:

- RIS3 Euskadi-ren koordinazioa lurraldeko eta udalerrietako garapen ekonomikoko eta berrikuntzako estrategia nagusiekin (Etorkizuna Eraikiz, Bizkaia Orekan, Agora eta Bilbo, Donostia eta Gasteizeko RIS3 estrategiak).
- ETEei zuzendutako RIS3 Euskadi-ren sozializazioa eta komunikazioa, Innobasque-rekin elkarlanean, eta Eskualdeetako Agentzien, LH Zentroen eta bestelako agente sozioekonomikoen parte-hartzearekin.
- Akitaniako, Nafarroako eta Euskadiko RIS3 estrategien arteko koordinazioa, Interreg Competitivek'0 proiektuaren bitartez, ETEen partaidetza duten lehiakortasun poloak sortzeko helburua duena.
- Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia arloetako Unibertsitate Prestakuntzaren Klusterraren **(4GUNE)** geroz eta parte hartze handiagoa **unibertsitatearen eta enpresaren** arteko lankidetzaren sustatzeko.
- **Basque Research & Technology Alliance (BRTA) partzuergo teknologiko berriaren** sorrera, 12 TZ eta 4 IKZ zentrorekin, euskal I+G-aren posizionamendua eta emaitzak sendotzeko.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua

### Eginkizunak

- Orientazio estrategikoa, parte-hartzea, aholkularitza eta ZTB politikaren sustapena
- ZTBESaren katalizatzaile eta koordinatzailea

### Osaera

- Eusko Jaurlaritza
- Foru Aldundiak
- Unibertsitateak
- Korp. teknologikoak
- Enpresak
- Ikerbasque
- Innobasque
- Jakiunde

### Aurrerapenak

- 2 bilera (ekaina eta abendua)
- Ezarpenaren jarraipena: Balantze positiboa
- 2030 ZTBParenten oinarri estrategiko eta ekonomikoen aurrerapena
- STEAM talentuaren eta bokazio berrien sustapena



## Batzorde Zientifiko Aholkularia ZTBKren aholkularitza organoa

### Eginkizunak


- Aholkularitza ZTBParenten diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan
- Aholkularitza Euskadirentzat estrategikoak diren alderdi zientifiko-teknologikoetan

### Osaera

- ZTBaren arloan ospe handikoak diren 10 profesional

### Aurrerapenak

- Batzorde Zientifikoaren osaera berritzeko bilera
- 2019-2020 aldia barne hartuko duen kronogramaren ezarpena
  - 2020 ZTBParenten ebaluazioa
  - 2030 ZTBP berriaren prestaketa



## Sail arteko Batzordea

### Eginkizunak

- RIS3 prozesu biziaren ezarpena
- ZTBP tresnen ebaluazioa
- ZTBESaren gobernantzaren koordinazioa

### Osaera

- ZTB alorrean jarduten duten Eusko Jaurlaritzako sail nagusien ordezkariak
- Beste erakunde batzuk: Innobasque eta Orkestra

### Aurrerapenak

- 2 bilera (ekaina, azaroa)
- ZTBParent ezarpenaren 3. fasearen laburpena eta jarraipena:
  - 3. fasearen garapena eta 2018ko aurrekontu eszenatokiak
  - RIS3 Pilotatze Taldeen ezarpena eta aurrerapena
  - 2020 ZTBParent 3. Ebaluazio Txostenaren aurkezpena
  - Berrikuntza publikoko plana
  - Euskal Sistema Zientifikoaren aurrerapenak



## Erakunde arteko Batzordea

### Eginkizunak


- Euskal administrazio publikoen arteko koordinazioa

### Osaera

- Sail arteko Batzordearen ordezkariak
- Foru Aldundiak
- Eudel

### Aurrerapenak

- Erakunde arteko hainbat bilera burutu dira, baina egutegi egituraturik gabe



## Pilotatze Taldeak

### Eginkizunak

- RIS3 prozesu bizia ezartzea espezializazio arlo guztietan





### Osaera

- 7 Pilotatze Talde Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetatik kudeatzen direnak eta enpresen, administrazio publikoen eta gizartearen ordezkariak eta Agente zientifiko-teknologikoek osatuak

### Aurrerapenak

- Hainbat Pilotatze Talderen gobernantza ereduaren berrikustea eta/edo indartzea (Basque Industry 4.0, Energia, Osasuna, Hiri Habitata, KSI)
- Tokiko eta nazioarteko finantzaketa erakartzeko gai diren 18 elkarlaneko trakzio proiektu antzeman eta bultzatzea
- Pilotatze Taldeetatik eratorritako 8 ekimen estrategiko sustatzea
- Euskal ETEi zuzendutako komunikazio eta sozializazio ekintzak, Innobasque-rekin, Eskualdeko Garapen Agentziekin eta LH Zentroekin lankidetzan

## Monitorizazioa eta ebaluazioa aurrera doaz planean aurreikusitakoaren arabera

Jarduera	Helburua	Aurrerapenak
 <p data-bbox="327 448 725 485">Estrategiaren ebaluazioa</p>	<ul data-bbox="1003 448 1346 644" style="list-style-type: none"> <li>• Euskadi 2020 ZTBPan ezarritako helburuen aurrerapen mailaren jarraipena (urteko txostena)</li> </ul>	<ul data-bbox="1451 448 1906 523" style="list-style-type: none"> <li>• Laugarren jarraipen txostena burutzea</li> </ul>
 <p data-bbox="327 743 636 780">Tresnen ebaluazioa</p>	<ul data-bbox="1003 743 1301 903" style="list-style-type: none"> <li>• Euskadi 2020 ZTBParen tresnak ebaluatzea eta monitorizatzea</li> </ul>	<ul data-bbox="1451 743 2024 1038" style="list-style-type: none"> <li>• EJko I+G+b programek ZTBParen helburuei egindako ekarpena aztertzeke lehen analisia prestatzea (bi urtean behin)</li> <li>• EGASaren programen inpaktuaren ebaluazioa SPRI taldearen aldetik (SIME)</li> </ul>
 <p data-bbox="327 1126 837 1163">ZTBESaren agenteen ebaluazioa</p>	<ul data-bbox="1003 1126 1339 1201" style="list-style-type: none"> <li>• Ezarritako helburuen ekarpena neurtzea</li> </ul>	<ul data-bbox="1451 1126 1957 1163" style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko programetan burutua</li> </ul>
 <p data-bbox="327 1326 875 1449">Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren ebaluazioa</p>	<ul data-bbox="1003 1326 1413 1487" style="list-style-type: none"> <li>• ZTB eskualdeko sistemaren egoera eta errendimendu orokorra ezagutzea (bi urtean behingo txostena)</li> </ul>	<ul data-bbox="1451 1326 1966 1401" style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Innobasque Berrikuntza Txostena</li> </ul>

## Eusko Jaurlaritzaren I+G+b aurrekontuak bilakaera positiboa izan du 2014tik 2018ra, baina egikaritze maila desberdina izan da urtearen eta aurrekontu programaren arabera

Aurrekontu-Programak		2014		2015		2016		2017		2018		2014-2018		
		Aurrek.	Betear.	Aurrek.	Betear.	Aurrek.	Betear.	Aurrek.	Betear.	Aurrek.	Betear.	Aurrek.	Betear.	Betear.
5412	<b>IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA UNIBERTSITARIOA</b>	<b>109</b>	<b>108</b>	<b>113</b>	<b>113</b>	<b>114</b>	<b>118</b>	<b>128</b>	<b>139</b>	<b>134</b>	<b>136</b>	<b>598</b>	<b>615</b>	<b>%103</b>
	IKERKETA ZIENTIFIKOA	36	35	35	34	35	32	44	44	51	46	201	191	%95
4223	EUS-EKO IKERKETA-PROGRAMA KONTRATUA	33	33	38	39	38	45	43	55	41	48	193	219	%114
	BESTE I+G+b-RI LOTUTAKO GASTUAK (PI soldatak)	40	40	40	40	41	41	41	41	42	42	204	204	%100
7214	<b>TEKNOLOGIA- ETA INDUSTRIA-IKERKETA</b>	<b>140</b>	<b>149</b>	<b>146</b>	<b>135</b>	<b>144</b>	<b>202</b>	<b>163</b>	<b>182</b>	<b>174</b>	<b>187</b>	<b>765</b>	<b>855</b>	<b>%112</b>
	BERRIKUNTZA ETA ESTRATEGIA	11	9	10	8	9	8	6	6	5	5	42	36	%86
5413	TEKNOLOGIA	113	122	118	103	117	173	140	153	150	164	637	715	%112
5211	EIGP ETA 5415 - BERRIKUNTZA-AGENDA DIGITALA (*)	16	18	18	24	18	21	17	23	19	18	87	104	%120
5411	<b>NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEI BURUZKO IKERKETA</b>	<b>18</b>	<b>17</b>	<b>17</b>	<b>15</b>	<b>18</b>	<b>16</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>19</b>	<b>19</b>	<b>89</b>	<b>86</b>	<b>%97</b>
	ARRANTZA-IKERKETA ETA GARAPENA	18	17	17	15	18	16	18	19	19	19	89	86	%97
4114	<b>OSASUN-IKERKETA</b>	<b>44</b>	<b>27</b>	<b>44</b>	<b>44</b>	<b>44</b>	<b>45</b>	<b>45</b>	<b>44</b>	<b>46</b>	<b>46</b>	<b>223</b>	<b>206</b>	<b>%92</b>
	OSASUN-IKERKETA	8	2	8	8	8	8	8	7	8	8	40	33	%83
	OSAKIDETZAKO OSASUN-IKERKETA	36	25	36	36	37	37	37	37	38	38	183	173	%94
1215	<b>IKERKETA ETA BERRIKUNTZA PUBLIKOA</b>	<b>16</b>	<b>12</b>	<b>16</b>	<b>13</b>	<b>16</b>	<b>14</b>	<b>19</b>	<b>14</b>	<b>20</b>	<b>20</b>	<b>86</b>	<b>73</b>	<b>%84</b>
	BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	14	12	14	13	14	14	14	14	15	5	70	58	%83
5415	BERRIKUNTZA-AGENDA DIGITALA (**)	2	0	2	0	2	0	5	0	5	15	16	15	%92
5414	<b>BERRIKUNTZAKO FUNTS ESTRATEGIKOA</b>	<b>37</b>	<b>47</b>	<b>37</b>	<b>25</b>	<b>51</b>	<b>62</b>	<b>38</b>	<b>18</b>	<b>41</b>	<b>22</b>	<b>204</b>	<b>174</b>	<b>%85</b>
	BERRIKUNTZA-FUNTSA	37	47	37	25	37	62	38	18	41	22	190	174	%92
	BERRIKUNTZA-FUNTSAREN 99. ATALA	0	0	0	0	14	0	0	0	0	0	14	0	%0
<b>BERRIKUNTZA GUZTIRA</b>		<b>362</b>	<b>360</b>	<b>372</b>	<b>345</b>	<b>386</b>	<b>457</b>	<b>411</b>	<b>416</b>	<b>433</b>	<b>430</b>	<b>1.965</b>	<b>2.008</b>	<b>%102</b>

(\*) 2014tik 2018ra egikaritutako aurrekontu errealak barne ditu Euskadiko Informazioaren Gizarteko Planari eta Berrikuntza Agenda Digitalari esleitutako aurrekontuaren sail guztiak.

(\*\*) 2014tik 2018ra egikaritutako aurrekontu errealak ez ditu barne Berrikuntza Publikoko Sailean Berrikuntza Agenda Digitalari esleitutako aurrekontuaren sailak.

**2019-2020 aldirako aurreikusitako bilakaera positiboa da, urteko %5etik gorako aurrekontu areagotze egonkorra hartu baita kontuan**

Aurrekontu-Programak		2019 (*)	2020 (*)	2019-2020	2014-2020
5412 4223	<b>IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA UNIBERTSITARIOA</b> IKERKETA ZIENTIFIKOA EUS-EKO IKERKETA-PROGRAMA KONTRATUA BESTE I+G+b-RI LOTUTAKO GASTUAK (PI soldatak)	<b>145</b> 59 43 43	<b>153</b>	<b>298</b>	<b>912</b>
7214 5413 5211	<b>TEKNOLOGIA- ETA INDUSTRIA-IKERKETA</b> BERRIKUNTZA ETA ESTRATEGIA TEKNOLOGIA EIGP ETA 5415 - BERRIKUNTZA-AGENDA DIGITALA	<b>185</b> 8 158 20	<b>197</b>	<b>383</b>	<b>1.238</b>
5411	<b>NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEI BURUZKO IKERKETA</b> ARRANTZA-IKERKETA ETA GARAPENA	<b>20</b> 20	<b>21</b>	<b>41</b>	<b>127</b>
4114	<b>OSASUN-IKERKETA</b> OSASUN-IKERKETA OSAKIDETZAKO OSASUN-IKERKETA	<b>49</b> 10 39	<b>55</b>	<b>105</b>	<b>310</b>
1215 5415	<b>IKERKETA ETA BERRIKUNTZA PUBLIKOA</b> BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA BERRIKUNTZA-AGENDA DIGITALA	<b>21</b> 15 5	<b>21</b>	<b>41</b>	<b>114</b>
5414	<b>BERRIKUNTZAKO FUNTS ESTRATEGIKOA</b> BERRIKUNTZA-FUNTSA BERRIKUNTZA-FUNTSAREN 99. ATALA	<b>41</b> 41 0	<b>42</b>	<b>84</b>	<b>258</b>
<b>BERRIKUNTZA GUZTIRA</b>		<b>462</b>	<b>489</b>	<b>951</b>	<b>2.959</b>

(\*) Aurrekontuen zenbatekoa duten urteak.

## ZTBParent 2014-2018 aurrekontu egikaritze eszenatokia

**Egungo aurrekontuaren egikaritze maila %90etik gorakoa da**

Eszenatoki ekonomikoak I+G inbertsioak (Datuak milaka eurotan)	2014-2018		
	Aurreikusitakoa ZTBP	Egikaritzea <sup>(1)</sup>	% beteta
<b>Finan. publikoa</b>	<b>2.520</b>	<b>2.430</b>	<b>%96</b>
EJ	1.887	1.984	%105
Foru Aldundiak	274	92 <sup>(2)</sup> [217 <sup>(3)</sup> ]	%34 [%79]
EAO	360	355	%99
<b>Enpresen finan.</b>	<b>4.351</b>	<b>3.675</b>	<b>%85</b>
<b>Nazioarteko finan.</b>	<b>524</b>	<b>536<sup>(4)</sup></b>	<b>%102</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.394</b>	<b>6.642</b>	<b>%90</b>
GUZTIRA + Foru Aldundien aurrekontuak berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko		[6.767 <sup>(3)</sup> ]	[%92]

**Aipagarria da Eusko Jaurlaritzak egindako inbertsio ahalegina (%105), enpresak apur bat atzerago geratu direlarik (%85)**

(1) Iturria: Iturria: Eustat. I+G inkesta. 2014-2017 egikaritu erreala + 2018 egikaritze aurreikuspena.

(2) Iturria: Eustat. I+G inkesta. Ez ditu barne Foru Aldundien berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko laguntza programak (>125 M€ 2014-2018 aldian).

(3) Iturria: Estimazio propioa, Foru Aldundien berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko laguntza programen deialdien analisis oinarrituta.

(4) Iturria: Eustat eta Euskal I+G+b Europar Koaderno Estrategikoaren aurreikuspenak.



ZTBParent 2014-2020 aurrekontu egikaritze eszenatokia

**ZTBParent 2014-2020 aldi osorako aurreikuspenak %87tik gorako aurrekontu egikaritze maila dakar, Eusko Jaurlaritzaren aldetiko inbertsio ahalegin handiarekin (%107) eta enpresen ekarpen apalagoarekin (%80)**

Eszenatoki ekonomikoak I+G inbertsioak (Datuak milaka eurotan)	2014-2020		
	Aurreikusitakoa ZTBP	Egikaritzea <sup>(1)</sup>	% beteta
<b>Finan. publikoa</b>	<b>3.678</b>	<b>3.561</b>	<b>%97</b>
EJ	2.737	2.917	%107
Foru Aldundiak	397	130 <sup>(2)</sup> [305 <sup>(3)</sup> ]	%33 [%77]
EA0	543	515	%95
<b>Enpresen finan.</b>	<b>6.609</b>	<b>5.306</b>	<b>%80</b>
<b>Nazioarteko finan.</b>	<b>814</b>	<b>829<sup>(4)</sup></b>	<b>%102</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.100</b>	<b>9.697</b>	<b>%87</b>
GUZTIRA + Foru Aldundien aurrekontuak berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko		[9.872 <sup>(3)</sup> ]	[%89]

(1) Iturria: Eustat. I+G inkesta. 2014-2017 egikaritu erreala + 2018-2020 egikaritze aurreikuspena.

(2) Iturria: Eustat. I+G inkesta. Ez ditu barne Foru Aldundien berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko laguntza programak (>125 M€ 2014-2018 aldian).

(3) Iturria: Estimazio propioa, Foru Aldundien berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko laguntza programen deialdien analisisian oinarrituta.

(4) Iturria: Eustat eta Euskal I+G+b Europar Koaderno Estrategikoaren aurreikuspenak.

- 2020 ZTBParenten **helburu operatiboen betetze mailaren aurrerapena**, 12 adierazleetatik 10etan posizioak aurreratu ondoren.

Oraindik ere **geldialdi** bat bizi dugu **enpresen I+G+b**-arekin lotutako adierazleei dagokienez.

- **Agenteen finantzaketa mix-ak** oso betetze maila ona ageri du, baina **funts pribatuen eta nazioarteko funtsen** atzipena azpimarratu beharra dago agente jakinen kasuan.
- Tresnen ezarpena Planean aurreikusitakoaren arabera aurrera doa **%90eko betetze mailarekin eta %6ko aurrekontu hazkundearekin**.

**Enpresetako I+G**-aren ildoak da aurrekontuan behera egin duen bakarra (-%6).

**Berrikuntza Funtsari** esker, nitxo guztiek (Hiri Habitata izan ezik) lortu dute laguntza programak mantentzea eta Biozientziak-Osasuna lehentasuna indartzen jarraitu da.


- Maila anitzeko gobernantza ereduaren garapenak aurrera jarraitu du, **RIS3-aren lurralde ezarpena** eta **ETEn parte hartzean** sakonduta.
- **Aurrekontu egikaritze maila**, 2018ra arte, **%90**etik gorakoa izan da, aipagarria izanik Eusko Jaurlaritzaren inbertsio ahalegina (%105) enpresen ahalegin apalagoaren aldean (%85).



# ERANSKINAK

Laguntza tresnak

	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua	2018an deialdidun lag. progr. %
<b>1. GAIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESAKO I+G-AREN BULTZADA</b>	<b>4</b>	<b>84M€</b>	<b>%100</b>


**Azalpena / Ezaugarri orokorrak****Laguntza jaso duten tresna eta jarduerak:**

- **Programa lehiakorrek** ikerketa aplikaturako, garapen esperimentalerako eta transferentzia teknologikorako.
- Frogapen, balioztapen eta berrikuntzarako **azpiegitura eta proiektu handiak**.

**Parte hartu duten sailak eta erakundeak:**

- **EGAS** erakunde finantzatzaile nagusia.
- **BFA**.

**Onuraduna(k) eta laguntza arloak:**

- **Enpresak**.
- Euskadi 2020 ZTBParent **arloekin lerrokatzea**, fabrikazio aurreratua eta energia bereziki.

**Aurrerapen maila**

Tresnak*	Kop.	Aurrekontua (M€)	2018an deialdidun lag. progr. %
Laguntza programak	4	84,2M€	<b>%100</b>
Azpiegiturak	4	78,0M€	
Beste batzuk	3	83,8M€	
<b>GUZTIRA</b>	<b>11</b>	<b>246M€</b>	

(\*) Tresnak:

- Laguntza programa: Hazitek; Basque Industry 4.0 Itsas Energiaren Frogapen eta Balioztapena; Berriker Berria.
- Azpiegiturak: AIC; BIMEP; CFA Aeronautika; CFA Eolika.
- Beste batzuk: Innobermea; Bidelek Sareak; Baliosasun, Eskala Faktore Industrialak.

	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua	2018an deialdidun lag. prog. %
<b>2. ENPRESA BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMARI LAGUNTZA</b>	<b>23</b>	<b>38M€</b>	<b>%88</b>

### Azalpena / Ezaugarri orokorrak

#### Laguntza jaso duten tresna eta jarduerak:

- Merkatuaren hurbileko enpresen berrikuntza **teknologikoa** eta **ez teknologikoa** laguntzeko programak.
- **(Barne)ekintzaitza** programak eta **erakundeak/sareak** (CEI, BEAZ) enpresa berritzaileak eta OTEB enpresak sortzeko.
- **Sektore primarioko eta elikaduraren sektoreko** programak.
- I+G+b proiektuak **asmatzeko** edo aukerazko lurraldeetan.
- I+G+b proiektuak **egikaritzeko laguntza programak**.

#### Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **Foru Aldundiak** finantzatzaile nagusiak.
- **Aukerazko lurraldeetako sailak** (ILPES, KHPS).
- **EGAS**.

#### Onuraduna(k) eta laguntza arloak:

- Enpresak (batez ere ETE).
- **Ekintzaileak eta ZTBESaren agenteak** (enpresen sorrera).
- **Geroz eta lerrokatze handiagoa** RIS3 lehentasun eta nitxoekin, batez ere, **fabrikazio aurreratua (4.0 industria), elikadura eta ekosistemak**.

### Aurrerapen maila

Tresnak*	Kop.	Aurrekontua (M€)	2018an deialdidun lag. progr. %
Laguntza programak	23	37,8M€	<b>%88</b>
Azpiegiturak	0	-	
Beste batzuk	6	EZ APLIKAGARRIA	
<b>GUZTIRA</b>	<b>29</b>	<b>37,8M€</b>	

- **SUSPERRALDI EKONOMIKORAKO PROGRAMAREN** deialdirik gabe: **GFAREN PRODUKTUEN BERRIKUNTZA; GIZARTE BERRIKUNTZA** eta **WPI BERRIKUNTZA LANPOSTUETAN; START-UP**.

(\*) Tresnak:

- Laguntza programa: Innobideak LEHIABIDE, Innobideak KUDEABIDE, Innobideak PERTSONAK; EAEko arrantza eta akuikultura sektoreari laguntza; LGPAREN Lankidetzeta Neurria; Ekintzaile; Álava Innova; Emprender en Álava; BEAZ - 2i Plana berrikuntza eta inbertsio aurreratua sustatzeko; Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 3i programa (Biz.); BEAZ-Enpresa Berritzaile Berriak; ELKARLANEAN (Biz.); BEAZ-Ekintzaitza eta Gizarte Berrikuntza; BEAZ-Bizkaia Sortzailea; Susperraldi ekonomikorako programa: produktuen berrikuntza (Gip.); Gizarte Berrikuntza eta WPI-Berrikuntza Lan-Postuetan (Gip.); Txekintek/Barnetekin (Gip.); Enpresak eraldatzeko programa (Gip.); Gipuzkoa 4.0: produktu eta zerbitzuen garapena; Gipuzkoa 4.0: bonu teknologikoak; Start-Up (Gip.); Ikerketa eta berrikuntza gizarte arretan (Gip.); KSI Berritzaile; Bitartez; Ekoberrikuntza eta ekoberrikuntzako I+G+b proiektuen diseinu bikainerako programa; Ekonomia zirkularreko eta ekodiseinuko frogapen programa.
- Beste batzuk: Innobideak PRESTAKUNTZA (Prestakuntza Directiv@21); BIND4.0; Innosasan; CEI Sarea; BEAZ; Ebaluaketa.

	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua	2018an deialdidun lag. progr. %
<b>3. GAITASUNEN KONBERGENTZIA ETA LANKIDETZAKO I+G-AREN SUSTAPENA</b>	<b>5</b>	<b>36M€</b>	<b>%100</b>

**Azalpena / Ezaugarri orokorrak****Laguntza jaso duten tresna eta jarduerak:**

- **Programa lehiakorrek** oinarrizko ikerketarako eta ikerketa aplikaturako.
- **Asmakuntzari** laguntza emateko ekimen esperimentalak
- **Lankidetzako proiektu jakinei** laguntza.

**Parte hartu duten sailak eta erakundeak:**

- **EGAS** erakunde finantzatzaile nagusia.
- **LEHENDAKARITZA, HS eta BFA.**

**Onuraduna(k) eta laguntza arloak:**

- **ZTBES** agenteak.
- **ETEak.**
- Bestelako erakundeak (kluster erakundeak, etab.).
- **Espezializazio arloekin lerrokatzea** (Elkartek eta Elkarlaneko Trakzio Proiektuen (ETP) Asmakuntza).

**Aurrerapen maila**

Tresnak*	Kop.	Aurrekontua (M€)	2018an deialdidun lag. progr. %
Laguntza programak	5	36,5M€	<b>%100</b>
Azpiegiturak	0	-	
Beste batzuk	1	EZ APLIKAGARRIA	
<b>GUZTIRA</b>	<b>6</b>	<b>36,5M€</b>	

Ez da identifikatu COOLAB-en esparruan laguntza jaso duen proiekturik 2014az geroztik

(\*) Tresnak:

- Laguntza programa: Elkarlaneko Trakzio Proiektuen (ETP) asmakuntza; Gizarte berrikuntza proiektuen (GBP) asmakuntza; Elkartek; POR; Trakzio Proiektuak.
- Beste batzuk: Coolab proiektua.

	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua*	2018an deialdidun lag. prog. %
<b>4. GAITASUN ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOEN SORRERA</b>	<b>17</b>	<b>127M€</b>	<b>%85</b>

**Azalpena / Ezaugarri orokorrak****Laguntza jaso duten tresna eta jarduerak:**

- **Oinarrizko** finantzaketa duten programak ZTBES agenteen **gaikuntzarako**.
- **Ikertzaileen mugikortasun eta prestakuntzarako** bekak.
- **Oinarrizko I+G eta I+G aplikatuko** programa lehiakorak.

**Parte hartu duten sailak eta erakundeak:**

- **EGAS** eta **HS**.
- **OS** eta **Foru Aldundiak** (Araba eta Gipuzkoa).

**Onuraduna(k) eta laguntza arloak:**

- **ZTBES** agenteak.
- **Unibertsitateko ikerketa taldeak eta osasun azpisistema**.
- **Euskadi 2020 ZTBParen arloekiko lerrokatzerik gabe**.

**Aurrerapen maila**

Tresnak**	Kop.	Aurrekontua (M€)*	2018an deialdidun lag. progr. %
Laguntza programak	17	126,5M€	<b>%85</b>
Azpiegiturak	0	-	
Beste batzuk	1	EZ APLIKAGARRIA	
<b>GUZTIRA</b>	<b>18</b>	<b>126,5M€</b>	

- **PLE** eta **ZABALDUZ (HS)** programek ez dute deialdirik 2014az gerostik
- **Osasuntek (OS)** programaren deialdirik gabe.
- **Ez da identifikatu AFAk ZTBES** agenteekin duen urteko hitzarmenaren berritzea.

(\*) Barne dira PROGRAMA-KONTRATUEN 26,9 M€ (2018ko Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateen Ikerketa eta Transferentzia ildoak)  
BERC eta IKERKETALDE Programen "urteko baliokidea" kalkulatu da, deialdi hauek lau urtean behin eta hiru urtean behin ateratzen baitira, hurrenez hurren.

(\*\*) Tresnak:

- Laguntza programa: Emaitek Plus; Nekazaritza-elikadura I+G laguntzak; Ikerketalde; Programa-Kontratuak; Doktorego aurretiko programa; Doktorego ondoko programa; OAIP; Ekizien; Egonlabur; Iker mugikortasuna; FP Berrikuntza eta Ekintzailletza Proiektuak; BERC programa; ZabaldUz; CTP; Gipuzkoako ZTB Sarea; Ingurumen alorreko ikerketa eta berrikuntzarako bekak (Gip.); Biozientziak-Osasuna alorreko ikerketa proiektuak; Osasun arloko topaketa zientifikoak antolatzen laguntzak; Erakunde zientifikoaren sorrerarako edo funtzionamendurako laguntzak; Osasuntek.
- Beste batzuk: AFAREN lankidetzaren hitzarmenak ZTBES agenteekin.

	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua	2018an deialdidun lag. progr. %
<b>5. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA ENPRESA TALENTUAREN KUDEAKETA ETA SUSTAPENA</b>	<b>8</b>	<b>24M€</b>	<b>%89</b>

**Azalpena / Ezaugarri orokorrak****Laguntza jaso duten tresna eta jarduerak:**

- **Ikertzaileak erakartzeko** programak.
- **Ikertzaileak kontratatze**ko laguntzak.
- Beste batzuk: ikertzaileen prestakuntza eta bititza osoko ikaskuntza.

**Parte hartu duten sailak eta erakundeak:**

- **HS** erakunde finantzatzaile nagusia.
- **EGAS.**
- **BFA** eta **GFA.**

**Onuraduna(k) eta laguntza arloak:**

- **Ikertzaileak.**
- **ZTBES agenteak eta enpresak** (kontratazioa).
- **Euskadi 2020 ZTBPar**en arloekiko lerrokatzerik gabe.

**Aurrerapen maila**

Tresnak*	Kop.	Aurrekontua (M€)	2018an deialdidun lag. progr. %
Laguntza programak	8	23,7M€	<b>%89</b>
Azpiegiturak	0	-	
Beste batzuk	0	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>	<b>23,7M€</b>	

- **IKASMINA (GFA)** programak ez du deialdirik 2015az gerotik.
- **Bizkaia Talent** programak ez du deialdirik 2018rako, Bizkaia-BBK beka programa sortu da.
- **Bikaintek (EGAS)** programak Berrikertu (EGAS) programa ordezkatu eta zabaldu du.

(\*) Tresnak:

- Laguntza programa: Ikerbasque-Research Fellows; Ikerbasque-Research Associate; Ikerbasque-Research Professors; Gazteak ikerketan eta teknologian prestatzeko laguntza; Bikaintek; Bizkaia-BBK Programa; Bizkaia Talent Laguntza Programa; Bikaintasunean Prestakuntza (Biz.); Gipuzkoa Fellows; Ikasmina (Gip.).



	Laguntza programen kop.	Laguntza programen aurrekontua*	2018an deialdidun lag. progr. %
<b>6. I+G+B SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA</b>	<b>5</b>	<b>0,4M€</b>	<b>%100</b>

**Azalpena / Ezaugarri orokorrak****Laguntza jaso duten tresna eta jarduerak:**

- **Europako sareak** (ERANET) ETEen arteko lankidetzan burutzen diren I+G proiektu transnazioaletarako hainbat arlotan.
- Nazioarteko **kongresu eta topaketa zientifikoak antolatzeko laguntzak.**

**Parte hartu duten sailak eta erakundeak:**

- **EGAS** erakunde finantzatzaile nagusia.
- **HS** eta **OS**.

**Onuradunak eta laguntza arloak:**

- **ETEak.**
- **ZTBES agenteak.**
- **ERANET bakoitzaren laguntza arlo espezifikoak,** bereziki fabrikazio aurreratua, energia eta elikadura.

**Aurrerapen maila**

Tresnak**	Kop.	Aurrekontua (M€)*	2018an deialdidun lag. progr. %
Laguntza programak	5	0,4M€	<b>%100</b>
Azpiegiturak	0	-	
Beste batzuk	2	EZ APLIKAGARRIA	
<b>GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>0,4M€</b>	

- **ERA-NET-ak zeharkako laguntza programekin sustatu dira, batez ere HAZITEK programa LEHIAKORRAREKIN.**

(\*) ERA-NET programak Hazitek Lehiakorraren bidez finantzatu ziren (EEEaren Itsas Energiaren Frogapen eta Balioztapen Programaren laguntzekin batera OCEANERA-NET esparruan eta EGASaren nekazaritza, elikadura eta arrantza alorretako oinarritzko ikerketa, ikerketa industriala eta garapen esperimentala bultzatzen dituzten proiektuen gastu eta inbertsioetarako laguntzekin batera SUSAN esparruan).

(\*\*) Tresnak:

- Laguntza programa: MANUNET (ERA-NET); M-ERA.NET (ERA-NET); SUSAN (ERA-NET); OCEANERA-NET (ERA-NET); IKERBILERAK.
- Beste batzuk: European Enterprise Network (EEN); EUROSASUN.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

ZTBP idazkaritza teknikoa:

**innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación